

ERANSKINAK

1. Eranskina: Jarduerak

1. Jarduera: “Asmatu nor”
<p>Helburuak:</p> <p>Irakasleak ikaskideen arteko harremanak nolakoak diren identifikatzea, hala nola, honako puntuak aintzat hartuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Irakasleek taldean duten onarpenaren edo ezezpenaren berri izatea. - Irakasleek ikasgelan duten estatusa zein den ezagutzea. - Irakasleek ikasgelan daukaten estatusaren zergatia identifikatzea.
<p>Edukiak:</p> <p>Jarduera hau irakasleak ikasle taldearen arteko harremanei buruzko informazioa jasotzeko denez, ikasleek ez dute edukirik lantzen.</p>
<p>Iraupena: Saio bat.</p>
<p>Materiala: Fitxa eta boligrafoa.</p>
<p>Prozedura:</p> <p>Ikasleei fitxa bat banatzen zaie non zenbait jokaera (positiboak eta negatiboak) deskribatzen diren. Ikasle bakoitzak, jokaera bakoitzaren ondoan, zerrendatutako deskribapen bakoitzerako bere ikaskideetatik bere ustez egokiena dena esan behar du. Esate baterako ikasleari esaten zaio “asmatu nor den adiskide asko dituen” edo “asmatu nor den bakarrik ibiltzen dena”, honela, ikasleak hausnarketa txiki bat egin behar du eta ikaskide baten izena jarri deskribapen bakoitzaren ondoan.</p>
<p>Ebaluazioa:</p> <p>Ebaluazioa egiteko ikasleek fitxetan adierazitako informazioa erabiliko da, honek, ikasle taldearen arteko harremanei buruzko datuak eskainiko dizkio, hala nola, ikasle bakoitzak gelan daukan estatusa zein den adieraziz eta era berean, onarpenaren zein ezezpenaren kausak identifikatzeko aukera emanez. Datu hauen arabera, bere jardunbidea moldatu eta egokitu ahal izango du datozen saioetan.</p>

Iturria: <http://www.sc.ehu.es/miwcacom/bigarrenaDT.pdf> -tik moldatua.

2. Jarduera: “Zenbat maite dut...?”

Helburuak:

- Ikasleen autoestimua zenbatekoa den ezagutzea.
- Ikasleek taldeari ematen dioten garrantzia zenbatekoa den ikustea.
- Ikasleen beharrian emozionalak identifikatzea.
- Ikasleek bere autoestimua eta harremanen inguruko hausnarketa egitea.

Edukiak:

- Autoestimua
- Harremanak

Iraupena: Saio bat.

Materiala: Orri zuri bat eta margoak.

Prozedura:

Ikasleei orri zuri bat banatuko zaie eta bertan bihotz bat irudikatzeko eskatuko zaie. Jarraian lau galdera hauek idatziko dira arbelean:

- *Zenbat maite duzu zure burua?*
- *Zenbat maite duzu familia?*
- *Zenbat maite dituzu zure lagunak?*
- *Maite al duzu beste inor edo beste zerbait?*

Ikasleek, galdera hauek erantzun beharko dituzte era grafiko batean, hau da, galdera bakoitzaren erantzuna bihotzaren zati bat irudikatuz adieraziko dute. Galdera bakoitzaren erantzuna kolore ezberdin batez margotu beharko dute. Esate baterako, “Zenbat maite duzu zure burua?” galderaren erantzuna “gutxi” bada, bihotzean zati txiki bat margotuko dute, “asko” bada, zati handi bat margotuko dute.

Bukaeran, taldean eseriko dira eta hausnarketa txiki bat bideratuko du irakasleak, zenbait galdera abiapuntutzat hartuz.

- *Nola uste duzue sentitzen dela norberarentzat bihotzaren zati txiki bat soilik utzi duena?*
- *Eta zati handia utzi duena?*
- *Zer beharko du pertsona horrek?*
- *Zergatik sartu ditugu lagunak eta familia bihotzean?*
- *Beste norbait edo zerbaiti utzi diozue tokia bihotzean?*

Ebaluazioa:

Ebaluazioa ikasleek egindako lana erabiliz egingo da eta era berean, behaketaren bidez taldean egindako hausnarketa aintzat hartuz. Jarduera honek, irakasleari balioko dio, ikasle bakoitzaren autoestimua eta harremanen inguruan daukan pertzepzioa zein den ezagutzeko eta jarduterakoan aintzat hartzeko. Honez gain, jarduera hau, hurrengo jarduera guztien ostean berriro egitea posible litzateke, hasierako pertzepzioaren eta amaierakoaren arteko aldea ikusteko eta aurrerapenik edo eboluziorik egon den ikusteko.

Iturria: <http://luciamateu.blogspot.com.es/p/dinamicas-emocionales.html> -tik moldatua.

3. Jarduera: “Ipurtargi txikiaren ipuina”

Helburuak:

- Ikasleek bere beldurren eta indarguneen inguruan hausnartzea eta hauek identifikatzea.
- Besteen beldurrak eta indarguneak ezagutzea.
- Ikasleen autoestimua handitzea.
- Besteen lekuan jartzea.
- Laguntza ematearen garrantziaz ohartzea.

Edukiak:

- Autoestimua

- Autoezagutza
- Enpatia

Iraupena: Saio bat.

Materiala:“Ipurtargi txikiaren ipuina”, paper zuri bat eta boligrafoa.

Prozedura:

Ikasleei “Ipurtargi txikiaren ipuina” izeneko istorio bat banatuko zaie. Hasteko, guztien artean ozenki irakurriko dute zerbait ulertzen ez baldin bada irakasleak azalduz. Jarraian, bakarka isilean irakurtzeko eskatuko zaie. Behin hau eginda, galdera hauek erantzun beharko dituzte bakarka:

- 1.- *Ipurtargi txikiak zergatik ez zuen hegan egitera irten nahi?*
- 2.- *Nork animatu zuen ipurtargitxo txikia etxetik ateratzera?*
- 3.- *Zer esan zion, bada, amonak animatzeko?*
- 4.- *Azkenean lortu zuen ipurtargitxoak etxetik irtetea, bere familiarekin hegan egitera? Zergatik?*
- 5.- *Noizbait beldurra sentitu duzu, ipurtargitxoak bezala? Nola sentitu zara?*
- 6.- *Norbaitek animatu zaitu beldur hori gainditzera?*
- 7.- *Zelan sentitu zara beldur hori gainditu ondoren?*
- 8.- *Lagundu diozu norbaiti beldurren bat gainditzeko? Zelan?*
- 9.- *Zer ikasi duzu ipuin honekin?*

Behin galderak erantzunda, biribilean kokatuko dira eta galderen erantzunak komentatuko dituzte guztien artean, iritziak elkarbanatuz, aholkuak emanez, eta abar. Honez gain, garrantzitsua litzateke ikasle bakoitzak beste ikasle batzuek indarguneak aipatzea. Hemen, irakasleak ere parte hartzea aberasgarria litzateke, izan ere, ikasleen erreferentia da eta lagungarria izan daiteke ikasleek beldurrak guztiok dauzkagun zerbait direla ikus dezaten. Era berean, behaketa egiteaz arduratu beharko da irakaslea.

Ebaluazioa:

Ebaluazioa ikasleek galderetan emandako erantzunen arabera egingo da, izan ere, honek ikasleen beldurren berri emango digu. Era berean, mahai inguruan komentatutakoa behatzea

ere ezinbestekoa izango da, hemen ikasleek besteen tokian jartzea lortu duten ikusi ahal izango baitu. Gainera, ikasleen heldutasun maila eta besteekiko jarrera ere ebaluatu ahal izango ditu.

Iturria: <file:///C:/Users/maiok/Downloads/adimen-emozionala-eskolan.pdf> -tik moldatua.

4. Jarduera: “Berdintasunean aurki ditzakegu ezberdintasun handienak”

Helburuak:

- Ikasleak ikuspuntu ezberdinak daudela ohartaraztea.
- Ikasleek ezberdintasuna aberasgarria dela ulertzea.
- Ikasleek aniztasunarekiko errespetua garatzea.

Edukiak:

- Aniztasuna
- Errespetua
- Enpatia

Iraupena: Saio bat.

Materiala: Lau aurpegi berdin dituen kaxa bat, paper zuri bat, kartulina, arkatza, borragoma eta margoak.

Prozedura:

Ikasleen mahaiak biribilean kokatuko dira eta biribil horren erdian, beste mahai bat kokatuko da. Erdian kokatutako mahai horren gainean, lau aurpegi berdin dituen kaxa bat kokatuko dugu. Jarraian, kutzaren irudi bat egiteko eta hura margotzeko eskatuko zaio ikasle bakoitzari. Bitartean, isiltasuna eskatuko zaie eta musika lasaia jarriko da, giro apropos bat lortzeko.

Bukatzen dutenean, irudi guztiak batu eta bata bestearen ondoan jarriko dira, guztiak ikusteko moduan, ondoren irudien antzekotasunak eta ezberdintasunak zerrendatzeko eskatuko zaie, gero gainontzekoekin elkarbanatzeko. Behin hau eginda, ateratako informazioa erabiliz, hausnarketa txiki bat bideratu beharko dute: kaxa berdina irudikatu dute, baina irudi guztiak ezberdinak dira. Ondoren, ikasgaia ondorioztatuko da: *Irudi guztiak*

ondo daude baina leku ezberdinetatik marraztu ditugunez, itxura ezberdina dute, hala ere, guztiak dira onargarriak, ez dago bat ere baztertu beharrik.

Bukatzeo, kartulina handi batean idatziko dute bakoitzaren ezberdintasunek aberasten dutela mundua. Kartulina gelan kokatuko dugu, beharrezko den kasuetan gogorarazteko.

Ebaluazioa:

Ebaluazioa behaketaren bidez egingo da, ikasle bakoitzak egindako ekarpenak aztertuz batez ere. Irakasleak, jardueraren ostean ikasleek aniztasuna zer den ulertzen duten ikusi ahal izango du, baita honekiko duten jarrera ere.

Iturria: file:///C:/Users/maiok/Downloads/adimen-emozionala-eskolan.pdf -tik moldatua.

5. Jarduera: “Nor naiz ni?”

Helburuak:

- Ikasleek aurkezpen bat egiteko sormena erabiltzea.
- Ikasleek ikaskideak sakonago ezagutzea.
- Ikasleek ikasgelako aniztasunaz ohartaraztea.
- Ikasleek beraien arteko loturak sendotzea.
- Ikasleen autoestimua handitzea.

Edukiak:

- Aniztasuna
- Errespetua
- Harremanak
- Sormena

Iraupena: Saio bat.

Materiala: Paper zuri bat, arkatza, borragoma eta margoak.

Prozedura:

Jarduera hau egiteko, ikasle bakoitzak ikasgelako txoko bat hartuko du, nahi duena. Berarekin folio bat eta margoak eramango ditu. Folio horretan bakoitzak bere burua aurkeztuko du (interesak, motibazioak, beldurrak, gustuak...), baina horretarako soilik irudiak erabili ahal izango ditu eta paperean ezin izango du bere izena adierazi. Behin hau eginda, marrazki guztiak batuko ditu irakasleak eta jarraian, ikasle bakoitzari bat banatuko dio azter dezan. Gero, biribilean jarriko dira eta bakoitzak irudian ikusten duena azalduko du, ikusi duenetik abiatuz irudiaren egilea nor den asmatu beharko dutelarik guztien artean. Amaieran, irudien egileak nortzuk diren argituko da eta bakoitzak bere burua aurkeztuko du irudian agertzen dena azalduz.

Jarduera honek aukera emango die beraien burua ezagutu eta era berean besteak ezagutzeko, horrela, beraien arteko berdintasunak, ezberdintasunak...zeintzuk diren ikusi ahal izango dute.

Ebaluazioa:

Ebaluazioa behaketaren bidez egingo da, ikasle bakoitzak egindako ekarpenak aztertuz eta hauen jarrera (jarduerarekiko zein taldearekiko) eta motibazioa nolakoa izan den aztertuz. Hemen, irakasleak, ikasleen arteko harremanak behatu beharko ditu eta era berean, aniztasunarekiko eta besteen gaitasun, zaletasun, gustu eta abarrekiko daukaten errespetua ere bai. Beraz, datu hauekin guztiekin, ikasleek gainontzeko ikasleekiko daukaten pertzepzioa zein den ikusi ahal izango du, aurrerapen bat egon den ikusiz.

Honez gain, ikasleek daukaten sormen maila ere ezagutu ahal izango du, sormena ez baita mugatzen arte hezkuntzara, hau da, aplikagarria da bizitzako zenbait arlotan, hala nola, gatazken konponketan.

Iturria:

<https://onedrive.live.com/view.aspx?cid=69c1594c8a6d221d&page=view&resid=69C1594C8A6D221D!2030&parId=69C1594C8A6D221D!2021&app=Word> -tik moldatua.

6. Jarduera: “Zoriontzen zaitut lagun!”

Helburuak:

- Ikasleen autoestimua handitzea.
- Ikasleen motibazioa handitzea.
- Gainontzekoen gaitasunak eta trebetasunak identifikatzea eta adieraztea.
- Ikasleen arteko harremanak sendotzea.
- Ikasleen arteko komunikazioa hobetzea, baita irakasle eta ikasleen artekoa ere.
- Familien parte hartzea sustatzea.

Edukiak:

- Autoestimua
- Komunikazioa
- Harremanak

Iraupena: Bi saio.

Materiala: Kartulinazko txarteltxoak eta boligrafoa.

Prozedura:

Biribil batean eseriko dira eta albo banatara dituzten ikaskideen trebetasunak eta gaitasunak zeintzuk diren gogoratu eta pentsatuko dute. Behin hau eginda, adierazi egin beharko diote esaldia honela hasiz: “Zoriontzen zaitut lagun...”. Jarraian, mezua jaso duen ikasleak “eskerrik asko” erantzun beharko dio. Jarraian, txarteltxoan idatziko du mezua eta kideari helaraziko dio, behar duenetan irakurri eta gogoratzeko. Era berean, saioaren bukaeran, nola sentitu diren galdetuko zaie, bakoitzak bere ekarpena egingo duelarik. Honekin batera, irakasleak fitxa bat banatuko die “Zoriontzen zaitut seme-alaba” izenekoa eta etxean guraso edo tutorearekin batera bete beharko dute. Bertan, ondo portatzen diren hiru momentu zerrendatu beharko dituzte. Gero beste saio batean, ikasgelan txartel horiek aztertuko dituzte, bakoitzak berea irakurriz eta esaldia honela hasiz “Nire gurasoek/tutoreak zoriontzen naute...”. Era berean, irakasleak ere, mezu positibo bat helaraziko dio ikasle bakoitzari txarteltxo baten bidez eta irakurri egingo du ikasleak “Nire irakasleak zoriontzen nau...”.

Ebaluazioa:

Ebaluazioa behaketaren bidez egingo da, ikasle bakoitzak, txartela idaztean izandako jarrera behatuz, ikasle bakoitzak txartela jasotzean eta irakurtzean izandako erreakzioa begiratzuz, ikasleek saioaren amaieran adierazitako sentipenak aztertuz.... Irakasleak, honen bidez, ikasleen motibazioa eta autoestimua hobetu diren ikusi ahal izango du eta honez gain, besteekiko ezagutza eta pertzepzioak bilakaera jasan duten ezagutuko du, besteen gaitasunak identifikatzeko eta era egoki batean adierazteko gai diren begiratzuz.

Iturria: [file:///C:/Users/maiok/Downloads/Dialnet-InnovarDesdeUnProyectoEducativoDeInteligenciaEmoci-5247178\(1\).pdf](file:///C:/Users/maiok/Downloads/Dialnet-InnovarDesdeUnProyectoEducativoDeInteligenciaEmoci-5247178(1).pdf) -tik moldatua.

7. Jarduera: “Bizipenez josita gaude”

Helburuak:

- Ikasleen autoestimua handitzea.
- Gainontzekoen ezagutza sakonagoa lortzea.
- Harremanak sendotzea.
- Komunikazioa hobetzea.
- Enpatia garatzea.

Edukiak:

- Autoestimua
- Komunikazioa
- Harremanak
- Enpatia

Iraupena: Bi saio.

Materiala: Argazkiak.

Prozedura:

Aurreko saioan, ikasle bakoitzari eskatuko zaio hurrengo saiorako bizipen bat gogorarazten dion argazki bat ekartzeko etxetik, bizipena positiboa edo negatiboa izan daiteke. Gero, argazkiak ikasgelan zehar banatuko dira eta musika lasaia jarriko da. Ikasleek hiru minutu

izango dituzte ikasgelan zehar isiltasunez ibili eta besteen argazkiak ikusteko. Jarraian, argazki guztiak erdigunean kokatuko dira eta bakoitzak gehien gustatu zaion argazkia hartuko du, beraz, bakoitzak beste baten argazkia izango du. Behin bakoitzak eskuan argazkia daukala, biribilean kokatuko dira argazki hori aukeratzearen zergatia azaldu beharko dute, ondoren, argazkiaren jabeak gainontzekoekin konpartituko du bere bizipena. Behin hau eginda, argazkiarekiko interesa erakutsi duen ikasleak, argazkia eramango du etxera eta jasotako bizipenarekin, zerbait idatzi beharko du orri baten (iritzia, antzeko zerbait gertatu bazaio, ipuin bat, bertso bat...). Hurrengo saioan, argazkiaren jabeari emango dio irakur dezan, beraz, bigarren saioan, horiek irakurri eta aztertuko dituzte. Irakurketa, mezua jaso duenak egingo du eta azterketan, iritziak elkarbanatuko dituzte, gainontzeko taldeekideek ere parte hartzeko aukera izango dutelarik.

Ebaluazioa:

Ebaluazioa behaketaren bidez egingo da, ikasle bakoitzak egindako ekarpenak aztertuz eta hauen jarrera nolakoa izan den begiraturaz. Hemen, hasteko, irakasleak ikasleak partekatutako bizipena positiboa edo negatiboa izan den ikusi beharko du eta ikasleek horien aurrean erakutsitako jarrera aztertu, hala nola, enpatizatu duten, parte hartu duten, feedbacka positiboa izan den, motibatuta jardun duten, lanetan emandako informazioa nolakoa izan den... Izan ere, honek guztiak informazioa emango dio, ikasleek beraien artean dituzten antzekotasun eta ezberdintasunen inguruan hausnartu duten ikusteko, ikasleen motibazioa eta autoestimua hobera egin duen ikusteko, komunikazioa eta harremanak indartu diren ikusteko, eta abar.

8. Jarduera: “Denon artean lor dezakegu!”

Helburuak:

- Ikasleen autoestimua handitzea.
- Ikasle guztiak taldeko partaide sentitzea.
- Bakoitzaren trebetasunak praktikan jartzea.
- Ikasleek hausnarketa egitea, egoera ezberdinak alderatuz.
- Ikasleen arteko harremanak eta komunikazioa sendotzea.
- Kooperazioan oinarrituta helburu komun baten bila joatea.

Edukiak:

- Autoestimua
- Komunikazioa
- Harremanak
- Talde lana eta kooperazioa

Iraupena: Lau saio.

Materiala: Informazio iturriak (Web orriak, entziklopediak, liburuak...), kartulina handi bat, margoak, rotulagailuak, artaziak, kola eta irudiak.

Prozedura:

Ikasleek proiektu bat egin behar izango dute, ikerketa lan bat hain zuzen ere. Horretarako, talde txikietan elkartuko dira, taldeak mistoak eta heterogeneoak izatea garrantzitsua dela aintzat hartuz, neska eta mutilen eta maila akademiko ezberdinak erakusten dituzten ikasleez osatutako taldeak egongo dira izan ere, horrela, elkarri laguntza eman beharko diote eta bakoitzak bere trebetasunak eta ahalmenak aprobetxatuz lan egin.

Ikergaia animalia bati buruzkoa izango da, izurdeen ingurukoa hain zuzen ere, izan ere, lantzen ari garen jardurekin bat egiten du animalia hauen bizimoduak eta izaerak, hau da, taldean bizitzea beharrezkoa duten animaliak dira eta inteligentzia emozionala oso garatuta daukate. Hau aintzat hartuz, honako gidoi honetatik abiatuta lan egingo dute:

- *Nolako animaliak dira izurdeak?*
- *Nola bizi dira?*
- *Nola komunikatzen dira?*
- *Jakin al dezakegu zerbait hauen emozioei buruz?*
- *Zein ondorio ateratzen duzue eta zein antzekotasun daukate gurekiko?*

Talde bakoitzak, galdera baten inguruan ikertuko du, horri buruzko informazioa bilatuz eta honen inguruko aurkezpen bat prestatuz, kideek ere beste galderen inguruko informazioa jaso dezaten. Behin aurkezpen guztiak entzunda, guztien artean, daukaten informazio guztia erabiliz, mural bat osatu beharko dute.

Proiektuarekin bukatzeko, gidoiko azken galderari erantzun beharko diote taldeka. Gero talde handian hausnartu eta ateratako ondorioak elkarbanatzeko. Era beran, taldean lan egitean nola konpondu diren, nola sentitu diren, norekin konpondu diren hobeto, zer ikasi duten, zer hobetuko luketen... idatzi beharko dute paper batean, irakasleari emateko.

Ebaluazioa:

Ebaluazioa behaketaren bidez eta ikasle bakoitzarengandik jasotako amaierako iritzien bidez egingo da. Jarduera honekin, irakasleak, aurretik landutako guztia praktikan jarri duten ikusi ahal izango du, izan ere, suposatzen da, beraien arteko harremanak eta komunikazioa hobetu direla eta ondorioz, taldean ere hobeto lan egingo dutela. Honez gain, ikasle guztien aldetik ekarpenak egongo direla suposatzen da, hauen autoestimua eta motibazioa hoberantz joan beharko lirakekeela aintzat hartuz. Beraz, hau guztia behatu beharko du irakasleak.

9. Jarduera: “Lagun ezkutua”

Helburuak:

- Ikasleen autoestimua handitzea.
- Taldeko partaide sentitzea.
- Bakoitzaren sormena erabiltzea.
- Hausnarketa egitea.
- Harremanak sendotzea.
- Komunikazioa sustatzea.

Edukiak:

- Autoestimua
- Komunikazioa
- Harremanak

Iraupena: Saio bat.

Materiala: Ikasle bakoitzak beharrezko duten edozer, hala nola, paperak, kartoiak, margoak, rotulagailuak, pintzelak, argazkiak...

Prozedura:

Jarduera hau azken jarduera izango da eta opor aurreko azken saioan egingo da. Aurreko saioaren amaieran momentutxo batean, ikasle guztien izenak idatziko dira papertxoetan eta tolestuz, kutxa batean sartuko dira nahasteko. Jarraian, ikasle bakoitzak papertxo bat hartuko du eta isilpean gordeko du suertatu zaion ikaslearen izena. Horrela, aste bete izango du ikasle horri opari esanguratsu bat prestatzeko.

Opari horrek zenbait baldintza bete beharko ditu, hala nola, eskuz egindakoa izan beharko da eta beste ikaslearen ezaugarri positiboak irudikatzea izango du helburu, hiruhilabetean egindako saioetan jasotako informazioa aintzat hartuz. Era berean, aholku bat eman beharko diete suertatu zaie ikasleari bere jarrera edo portaera hobetzen laguntzeko, aholkua ere positiboa izan beharko da.

Opariak prest daudenean, azken saio honen hasieran, ikasgelan banan-banan sartuko dira eta oparia ikasgela erdian utziko dute. Denek utzitakoan, biribilean eseriko dira. Bakoitzak bere izena daukan oparia hartu, eseri eta ireki egingo du, 5 minutu izango ditu oparia begiratu eta zer adierazten duen pentsatzeko. Jarraian, bakoitzak ikusten duena esango du eta gero oparia sortu duenak hitz egingo du benetako esanahia adieraziz.

Behin hau eginda, jarduera guztietan egindakoa biltzen duen hausnarketa bat burutuko dute bakarka zenbait galderari erantzuna emanez eta behin hau eginda, komunean jarriko dituzte iritziak eta erantzunak. Galderak hauek izango dira:

- *Nola sentitu zarete jarduerak egiterakoan?*
- *Ikusi duzue aldaketarik zuen jarreretan hasieratik orain arte?*
- *Zein izan da gehien gustatu zaizuen jarduera? Zergatik?*
- *Zer ikasi duzue eta zertarako balio izan dizuete?*
- *Zerbait gehiago esan nahi duzue? Ikaskideen inguruan, zeuen inguruan...*

Saioari amaiera emango diote, guztiak sorbaldetatik heldu eta besarkada handi bat emanez.

Ebaluazioa:

Jarduera honek, prozesu osoan egindakoa ebaluatzeko balioko du eta behaketaren bidez zein jasotako amaierako iritzien bidez egingo da, baina batez ere, amaieran egingo zaizkien galdera horien erantzunak izango dira irakaslearentzat informazio iturri baliagarriena. Honen bidez ikusi ahal izango du ikasle bakoitzak hasieratik amaierara izandako bilakaera, bai autoestimari dagokionez, bai taldearekiko jarrerari dagokionez, baita besteekiko ezagutzari dagokionez ere.

10. Jarduera: “Hitz goxoak niri, hitz goxoak zuri”**Helburuak:**

- Ikasleen autoestimua handitzea.
- Ikasleek besteen ezaugarri positiboak identifikatzea eta adieraztea.
- Harremanak sendotzea.

Edukiak:

- Autoestimua
- Harremanak

Iraupena: Urritik abendura arte egingo da, egunero.

Materiala: Gutun-azal bat, txartelak eta boligrafoa.

Prozedura:

Ikasle bakoitzari egun bat esleituko zaio eta ikasle bakoitzak ikasle horri bere ezaugarri positibo bat idatzi beharko dio txarteltxo batean. Txarteltxo hori gutun-azal batean sartuko dute mezuak jaso dituen ikasleak etxera eraman eta irakur ditzan.

Hurrengo goizean, lehenengo saioaren hasierako minutuetan, ikasleak mezu positibo horiek irakurtzean nola sentitu den azalduko du eta gehien gustatu zaion mezua zein izan den adieraziko du, zergatia adieraziz.

Ebaluazioa:

Irakasleak ikasleek mezuak irakurri ostean adierazitako sentimenduak bilduko ditu eta era berean, ikasleek besteen ezaugarri positiboak idazterakoan eta identifikatzerakoan egindako ahalegina ebaluatuko du. Honek guztiak, informazioa emango dio, ikasleen autoestimua handitzen doan ikusteko eta aldi berean, ikasleek gainontzeko taldekideekiko daukaten jarrera nolakoa den eta bilakaera jasaten ari den ikusteko.

2. Eranskina: Materiala**Iputargi txikiaren ipuina**

Bazen behin ipurtargi talde bat, lanpati altu-altu baten enborraren barruan bizi zena. Lanpatia Thailandiako zuhaitz handi eta zaharrenetako bat da.

Iluntzero, itzalek den-dena hartzen zutenean, eta hurbileko ibaiaren murmurioa baino entzuten ez zenean, ipurtargi guztiak enborretik atera, eta distirez betetzen zuten zerua. Euren argiekin irudiak egitera jolasten ziren, airean dantzan eginez, eta milaka dirdira marrazten zituzten, su artifizialen gaztelu batenak baino distiratsuago eta ikusgarriagoak. Baina lanpation bizi ziren ipurtargien artean bazen bat, txiki-txikia, hegan egitera ateratzea gustuko ez zuena.

- Ez, ez, gaur ere ez dut hegan egitera irten nahi –esaten zuen ipurtargitxoak gauero.

Iputargitxoaren aitona-amonak, gurasoak, anai-arrebak eta lagunak irrikaz zeuden, gaua noiz helduko, etxetik atera eta iluntasunean argi egiteko. Hain ondo pasatzen zuten, ezen ez baitzuten ulertzen ipurtargitxoa zergatik ez zen inoiz haiekin ateratzen. Behin eta berriz esaten zioten hegan egitera ateratzeko, baina ez zegoen konbentzitzeko modurik.

- Ez dudala hegan egitera irten nahi! –errepikatzen zuen behin eta berriz ipurtargitxoak.

Iputargi talde guztia zegoen oso kezkatuak, ipurtargitxoaren jarrera zela eta. Egunak joan eta egunak etorri, ipurtargitxoak etxe barruan jarraitzen zuen, atera gabe.

Iluntze batean, ipurtargi guztiak hegan egitera atera zirelarik, amona ipurtargi txikitxoarengana hurbildu zen, eta samurtasunez galdetu zion:

-Zer duzu, txikitxo? Zergatik ez duzu inoiz etxetik irten nahi? Zergatik ez duzu inoiz nahi izaten gurekin hegan egin eta gaua argitu?

- Ez zait hegan egitea gustatzen! –erantzun zion ipurtargitxoak.

- Baina, zergatik ez zaizu gustatzen hegan egitea eta argi ematea? - Ba... –azaldu zuen azkenean ipurtargitxoak–, zertarako aterako naiz, nire argiarekin inoiz ez badut ilargiaren pareko distirarik egingo? Ilargia handia eta ederra da, eta, ni, haren ondoan, ez naiz ezer. Hain naiz txikia, txinparta ñimiñoa baino ez naizela ilargiaren ondoan. Horregatik ez dut etxetik ateratzeko gogorik izaten, inoiz ez dudalako ilargiaren pareko dirdirarik egingo.

- Ene, umetxo! –amonak irribarrez– Bada ilargiari buruz jakin behar duzun zerbait, oraindik ez dakizu eta. - Eta zer da jakin behar dudan hori? - Bada, jakin behar duzu ilargiak ez duela gau guztietan argi bera egiten. Ilargia egunero aldatzen da. Gau batzuetan ezin distiratsuago egoten da. Beste batzuetan, ordea, ezkutatu egiten da; haren dirdira itzali, eta mundua iluntasunik beltzenez murgilduta uzten du.

- Baina egia al da ilargia gau batzuetan ezkutatu egiten dela?

- Horixe baietz! Gau batzuetan ilargia handi da; beste batzuetan, ordea, ikusi ere ez da egiten. Ilargiak ez du dirdira bera egiten beti. Izan ere, ilargiaren argia eguzkiaren mende dago. Baina zuk, txikitxo, beti izango duzu dirdira berbera, eta zeure argiarekin egingo duzu.

Aurrerantzean, ipurtargitxoa gauero irten zen bere familiarekin hegan egitera. Eta horrela ikasi zuen bakoitzak bere argiarekin egin behar duela dirdira. Gaztelu batenak baino distiratsuago eta ikusgarriago.

Iturria: <file:///C:/Users/maiok/Downloads/adimen-emozionala-eskolan.pdf> -tik hartua.